

4. Diru-sarrerak

INKLUNET proiektuaren diru sarrera eredua dibertsifikatua eta jasangarria da. Helburua da plataforma doakoa izatea erabiltzaile arruntentzat, baina aldi berean erakundeentzat eta bazkide estrategikoentzat balio erantsi handiko zerbitzuak eskaintzea. Horretarako, bi diru sarrera mota uztartzen dira: ordainketa bakarrekoak eta ordainketa errepikariak.

Hasierako faseetan, berrikuntza sozial eta teknologikoko dirulaguntzak izango dira funtsezko iturria. Erakunde publiko eta pribatuen laguntza ekonomikoak, gizarte inklusiboarekin lotutako programak eta Europar funtsak erabiliko dira plataforma sortu eta garatzeko. Era berean, crowdfunding edo dohaintza kanpainak martxan jarriko dira komunitatea aktibatzeke eta garapen kostuen zati bat estaltzeko; horiek ordainketa bakarreko diru iturri gisa funtzionatuko dute.

Epe ertain eta luzera, diru sarrera egonkorak nagusiki ordainketa errepikarietatik etorriko dira, batez ere erakunde, elkarte eta udal-entitateentzako diseinatutako INKLUNETen bertsio profesionalaren harpidetzen bidez. Harpidetza horrek irisgarritasun tresna aurreratuak, gestio panelak, azpigitulu automatiko pertsonalizatuak eta komunitate pribatuak sortzeko aukerak eskaintzen ditu, eta proiektuaren diru sarrera nagusietako bat bihurtuko da.

Gainera, erabileragatiko tasen bidez dirua sortzea aurreikusten da, hala nola Zeinu Hizkuntzako zerbitzu puntualak, bideoen transkripzio profesionalak edo irisgarritasun aholkularitza eta formakuntza saioak. INKLUNETek garatutako teknologia propioak —ikusmen zailtasunetarako pertsonalizazio aurreratuak edo azpigitulu argiak eta ulergarriak— beste erakundeei lizentzien bidez eskaintzeko aukera ere jasotzen du, diru-sarrera osagarri egonkor moduan.

Publizitateari dagokionez, INKLUNETek eredu berritzailea proposatzen du: publizitate etiko, ez inbasibo eta guztiz irisgarria baino ez du onartzen. Ez da algoritmo intrusiborik erabiliko, ezta erabiltzaileen datu sentikorrek ustiatuko ere; beraz, publizitatea sarrera osagarri gisa kokatzen da, eta plataforma hazi ahala bere garrantzia handituko da. Halaber, bitartekaritza edo komisio bidezko diru-sarrerak

ere aurreikusten dira: elkarteek eta erabiltzaile profesionalek eskaintzen dituzten irisgarritasun zerbitzuak INKLUNET bidez kontratatzen badira, plataformak komisio txiki bat jasoko du.

Hasierako bi urteetarako diru-iturrien estimazio zuhurra hauxe da: dirulaguntzak eta finantzaketa publiko/pribatua %40, erakundeentzako harpidetza profesionalak %35, publizitate etikoa %10, erabileragatiko zerbitzuak %10 eta crowdfunding edo dohaintzak %5.

Banaketa honek aukera ematen du hasierako inbertsio handiak estaltzeko eta epe luzerako egonkortasuna ziurtatzeko. Horri esker, INKLUNETek bere helburu nagusia bete ahal izango du: pertsona guztientzako espazio digital inklusibo, irisgarri eta segurua mantentzea, eta komunitatearen hazkunde iraunkorra bermatzea.



BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: Lucia ia